

## **Tik Tak**

### **Bezeroekiko Harremanak**

Lehenik eta behin esan beharra dago, helburu nagusia bezeroen konfiantza, fidagarritasuna, jarraitasuna zein fideltasuna lortzea dala. Izan be, erabiltzaileak beraien egunerokotasunean, aplikazioa planak alkar partekatzeko modu jarraian erabiltzeak guretzat garrantzi handia dauka.

Bezeroakaz izango dogun harremana autozerbitzua izango da. Alde batetik, bezero batek aplikaziora gura dabezan planak igo ahalko dauz eta beste alde batetik, beste erabiltzaileek proposatutako planetara gehitu ahalko dira. Hareei eskainiko deutseguna konfiantza, konstantzia, konpromisua, ardura eta lana beste gauza batzuen artean izango da. Orobat, hori aplikazioaren zein sare sozialen bitartez mantenduko dogu. Horretarako erabiliko doguzan bideak honeek dira:

#### **Aplikazioa, Postontzia**

Alde batetik, aurrerago aitatu dan komunikazio kanala bezala dagoan aplikaziorako atala erabiliko dogu: notifikazioak, iradokizunak eta eskaerak bidaltzeko postontzi digitala. Konstante mantenduko gara, egunero bezeroakaz harremanetan jarritz aplikazioa hobetu daiten. Izan be, horren bitartez kexak, eskakizunak eta iruzkinak jasoko doguz. Beraz, aplikazioa hobetzean eta ahalik eta zerbitzu onena eskeintzean, bezeroak fidelizatzea lortu geinke. Horretaz gain, postontziaren eta geolokalizadorearen bitartez, bezeroak gudan izandako esperientzian oinarrituta, plan eta jarduera ezbardinak aurkeztuko geunzkiez, modu honetan, bezero fidelak izatea lortuz.

#### **Sare Sozialak, Instagram eta Tik Tok**

Beste alde batetik, sare sozialak ezinbesteko tresna izango dira bezeroekiko harremanak edukiteko. Honeen bidez, gure erabiltzaileak gurekin harreman luzea mantentzeko helburuarekin, plataforman konstantzia eskainiko deutsegu, argazki edo bideo barriak zein barritasunen barri izanda. Argazki edo bideo honeen bidez, aplikazioaren diseinuaren aldaketak eta hainbat planen argazkiak erakutsiko dira.